

# Eunate Prietoren *Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa* liburuaren erreseina

(Review of the book *Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa*, by Eunate Prieto)

---

AGOUES MENDIZABAL, Carmen

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Zuzenbide Fakultatea  
Manuel de Lardizabal, 2  
20018 Donostia  
carmen.agoues@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 16; 71-75]

---

**E**unate Prietok aurkezturiko doktore tesia biltzen duen *Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa* liburuaren gaineko erreseina eskaintzen digu Carmen Agoues irakasleak.

**Giltza-hitzak:** Eunate Prieto. Musika irakaskuntza. LOGSE. 2/2006 Lege Organikoa.

**Z**a profesora Carmen Agoues realiza una reseña crítica sobre el libro *Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa* (Régimen jurídico de las enseñanzas musicales), que recoge la tesis doctoral presentada por Eunate Prieto.

**Palabras clave:** Eunate Prieto. Enseñanzas musicales. LOGSE. Ley Orgánica 2/2006.

**Z**a professeur Carmen Agoues réalise un reume critique sur le livre *Musika-irakaskuntzaren erregimen juridikoa* (Regime juridique des enseignements musicaux), qui recueille la these doctorale presentee par Eunate Prieto.

**Palabras clave:** Eunate Prieto. Enseignements musicaux. LOGSE. Loi organique 2/2006.

---



I. Hezkuntzan, oro har, musikari oso garrantzi txikia ematen zaio, eta musika-irakaskuntza espezializatua lortu nahi duenak musika-eskoletan eta kontserbatorioetan ikasi behar du. Hezkuntza-administrazioek arreta eskasa jarri dute musikaren irakaskuntzan, eta, kontserbatoriez gain, udalen menpeko musika eskolek eskaini digute musika ikasteko aukera bakarra. Goi-mailako musika-hezkuntzak ere ez du leku propio bat izan duela gutxi arte. Euskal Autonomia Erkidegoan, Musikenek –2001. urtean eratu zen fundazio gisa– eskaintzen du egun goi-mailako musika-hezkuntza. Unibertsitate-sisteman integraturik ez badago ere, aurrerapausoak ematen ari dira konbergentzia hori gerta dadin, eta horren adierazle dugu Musikene Euskal Herriko Unibertsitateko kanpusean kokatzeko erabakia.

Erreseinatzen den liburuan<sup>1</sup>, gure ordenamendu juridikoak musika-irakaskuntzari eskaintzen dion lekua aztertzen da, eta horretarako LOGSE (Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrerako 1990eko Lege Organikoa) hartzen da abiapuntu. Alabaina, azken urte hauetan hezkuntzari buruzko araudiak aldaketa ugari jasan ditu, eta azken aldaketak –duela gutxi onarturiko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa– LOGSE indargabetu du. Horrek zuzenean eragiten dio eskuartearen dugun liburuaren edukari, baina, hala ere, esan genezake egindako ikerketa eta bertan azaltzen diren kritika, ohar eta proposamen gehienek ez dutela gaurkotasunik galdu; aitzitik, berretsi egiten dira.

Eunate Prietok musikaren definizio batekin egiten du liburuaren sarrera eta soinua ezberdinak adieraziz inguratzen gaitu musikaren esanahia bilatzera. Musikaren garrantzia eta eragina adierazi nahian, bere bi alderdiak azpimarratzen ditu: haren funtzio soziala alde batetik, eta gizakion garapenean duen eragina bestetik. Sistematika koherente eta logiko bat jarraituz, musika-irakaskuntzen inguruan sortu diren gatazka juridikoei benetako ausardiaz egiten zaie aurre, eta, aldi berean, doktrinan dauden hutsuneak zorrotzasun zientifikoa bikaina erabiliz betetzeko saiakera egiten da.

II. Bederatzi ataletan banatzen da ikerketalana. Lehenengo atalean, musika-irakaskuntzak gaur egundaino izan duen bilakaera aztertzen da, eta, batez ere, espainiar ordenamendu juridikoak azken bi mendeetan ezagutu dituen hiru hezkuntza-sistemetan musika-irakaskuntza nola antolatzen deskribatzen da.

Bigarren atalean, LOGSEk ezarritako sistema abiapuntutzat hartuz, bi irakaskuntza-mota bereizten dira: araubide orokorrekoak [hezkuntza-

sistemaren derrigorrezko mailatan (lehen eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan) nahiz borondatezko mailatan (batxilergoan eta unibertsitate-irakaskuntzan) burutzen diren musika-ikasketak] eta araubide berezikoak–musikaren irakaskuntza profesionala edo arautua hiru mailatan antolatzeari ekin zion LOGSEk: oinarritzko maila, maila ertaina eta goi-maila).

Ordenamendu horren arabera, musika ikasteko hiru norabide ezberdintzen ditu autoreak: profesional eta borondatezkoa, ez profesional eta borondatezkoa, eta profesionala eta derrigorrezkoa. III, IV eta V atalburuetan aztertzen dira norabide horiek. VI. atalburuan, goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzen tituluak eta lan-aukerak ikusten dira, eta VII. eta VIII. atalburuetan, berriz, musika-ikastetxe ofizialen eta irakasleen erregimen juridikoa. Azken atalburuan, Boloniako prozesuan, goi-mailako musika-irakaskuntzak zein leku har dezakeen aztertzen da.

Aipatu dugun bezala, araudi honek aldaketa batzuk jasan ditu, eta egun indarrean dugun 2/2006 Lege Organikoaren arabera, musika-irakaskuntzak araubide bereziko irakaskuntza bezala jarraitzen du, eta arte-irakaskuntzen kapituluan arautzen da. Hiru maila ezberdintzen dira: musikaren oinarritzko irakaskuntza, musika-irakaskuntza profesionala eta goi-mailako musika-irakaskuntza.

Liburuaren bigarren atalburuan, araubide orokorreko musika-irakaskuntza aztertzen da, hau da, helburu profesionalik ez duen musika-irakaskuntza orokorra. LOGSEk hezkuntza-sistemaren derrigorrezko mailatan (lehen eta bigarren hezkuntzan) musika-irakaskuntza sendotzea zuen helburuetako bat. Horretarako, unibertsitate-mailakoa ez den araubide orokorreko hezkuntzan, musika-irakaskuntza, lehen hezkuntzako nahiz bigarren hezkuntzako *curriculum*-etako osagai bihurtu zuen. Maila hauetan irakasten den musikaren edukia eta ordutegia aztertzen baditugu, berehala ohartuko gara araubide orokorreko musika-irakaskuntzen heziketa-maila erabat eskasa dela, eta ez dela nahikoa hurrengo pauso bat emateko, musika-irakaskuntza profesionalan sartzeko. Honek honela jarraitzen duela frogatzeko, nahikoa dugu Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 49. artikulua irakurtzea. Bertan, musika-irakaskuntza profesionalera sartzeko sarbide-froga berezi bat gainditzea galdatzen da, eta argi dago sarbide-froga hori ezingo litzatekeela gainditu hezkuntza-sistemaren derrigorrezko mailatan jasotako musika-irakaskuntzarekin.

LOGSEren arabera, musika-ikasketak helburu profesional batekin hasten dituenak aukera

1. PRIETO, Eunate. *Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa*, Bilbo, 2005.

AGUÉS MENDIZABAL, Carmen. Eunate Prietoren *Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa* liburuaren erreseina. *Eleria*. 16, 2007, 71-75

bakarra dauka: araubide orokorreko eta araubide bereziko musika-irakaskuntzak burutzea. Honek dakarren irakas-zama arintzeko, Hezkuntza Administrazioak neurri egokiak hartu beharko lituzke. Neurri horien artean, ikastetxe integratuak aurreikusten dira, LOGSEren benetako erronka; hauen helburua, bi irakaskuntza mota era integratuan uztartzea da. 2/2006 Lege Organikoak, irakas-zama hau arintzearen, neurri berri bat aurreikusten du: musika-irakaskuntza profesionala bukatu duenari Batxiler titulua jasotzeko aukera ematen zaio batxilergoko ikasgai komunak gainditu baditu, nahiz eta musika-batxilergoa ez burutu.

Goi-mailako musika-irakaskuntza obsesio bihurtzen da ikerketa lan honetan. Goi-mailako musika-irakaskuntzak bikoiztu egiten dira espainiar ordenamendu juridikoan: alde batetik, unibertsitate mailakoak (historia eta musika-zientzietan lizentziadun titulua nahiz musikologia, eta musika-hezkuntza espezialitatean maisu-diplomatura), eta bestetik unibertsitate-lizentziadun-tituluaren balio-kide direnak. Azken hauek araubide-bereziko goi-mailako musika ikasketak dira. Autoreak dioenez, *“araubide-bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzek, unibertsitate-mailakoen aldean, sakontasun gehiagorekin trebatzen dute bai zientifikoki bai teknikoki”*. Nire ustetan, baieztapen horrek ikuspegi nahiko murriztailea du oinarri. Titulazio bakoitzak bere ezaugarriak eta helburuak ditu, eta “sakontasuna” neurtzeko, aldeztatik titulazio horien gaiak aztertu eta parametro batzuk finkatu beharko lirateke.

Baieztapen honen atzean arrazoi bat azaltzen da: Unibertsitate mailako musika-irakaskuntzak ez dira eratzen aurreko mailatan zehar izan duten progresio baten ondorio bezala; aldiz, araubide bereziko goi-mailako musika irakaskuntzan, progresioaren faktorean oinarrituz, maila batetik bestera igotzeko, froga berezi batzuk gainditzea galdatzen da. Progresioaren faktore hau da, hain zuzen, araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzen berezitasunetako bat, beste titulazioetatik aldentzen duena. Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, LOGSEren ildo bera jarraituz, autoreak kritikatzeko duen bikoiztasuna mantentzen du, baina goi-mailako musika-irakaskuntzek, Boloniako prozesuaren ondorioz, gradu titulua eskuratuko dute.

Hirugarren atalean, musika-irakaskuntza ez arautua aztertzen da, hau da, hezkuntza-sistematik at antolatzen dena. Eredu honek bi maila bereizten ditu: LOGSEk helburu profesionalik gabe aurreikusten duen aukera, hau da, musika eskolek eskaintzen dutena, balio ofizialik gabe, eta, bestetik, goi-mailako musika-heziketari dagokiona, sistemaren hutsuneak betetzeko hezkuntza-sistematik kanpo antolatzen diren goi-mailako ikastaroak. Praktikak erakusten digu musika-irakaskuntza ez arautu honen funtzio soziala ukaezina dela, eta, horren ondorioz, 2/2006 Lege

Organikoak irakaskuntza hauek ere bere baitan jasotzen ditu, Hezkuntza Administrazioen esku utziz euren arauketa.

III. Araubide-bereziko musika-irakaskuntza, hau da, norabide profesionala hartzen duena, hiru gradutan banatzen zuen LOGSEk, eta ildo bera jarraitzen du 2/2006 Lege Organikoak: oinarrikoa, ertaina eta goi-mailakoa.

Maila ertaineko musika-irakaskuntzei dago-kienez, autoreak *curriculum*-etako edukiak murriztea proposatzen du, izan ere LOGSEk ondorio akademikoak soilik aitortzen zizkion maila ertaineko musika-irakaskuntza burutu ondoren emandako tituluari, batxilergo tituluekin batera. Araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzei ekin ahal izateko gaituko luke maila ertaineko titulua.

Hezkuntza Lege berriak, ondorio akademi-koaz gain, ondorio profesionalak ere ematen dizkio maila ertaineko musika-irakaskuntzari buruzko tituluari. Bestalde, eta *curriculum*-a arintzeko helburuarekin, musika-irakaskuntza profesionala amaitu duen ikasleari batxilergoko titulua eskuratzeko aukera ematen dio batxilergoko irakasgai komunak gainditu dituenari.

Goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzek ordenamendu juridikoan duten *status*-ak-unibertsitate-mailako tituluen balio-kidea-eragina izan du bere antolakuntza akademikoan, egun unibertsitate-mailako hezkuntza-sistemetatik hurbilago –orokorrean, hiru talde nagusitan sailkatu ohi dira irakasgaiak: derrigorrezkoak, hautazkoak eta hautapen askekoak, kreditu-sistema-. Hala eta guztiz ere, autorearen ustetan, egun ezin da europar kreditu-sistema goi-mailako musika-irakaskuntzetan ezarri, gradu unibertsitate-titulu ofizialei bakarrik ezar dakiekeelako. Honen aurrean, unibertsitateari buruzko marko juridikoan arautu beharko lirateke goi-mailako musika-irakaskuntzak.

Egoera hau zertxobait aldatu da Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoarekin. Nahiz eta goi-mailako musika-irakaskuntza LOGSEren ildo bera jarraituz arautzen den, goi-mailako musika-ikasketa bukatu den ikasleari Goi-mailako Musikaren titulua eskuratzeko aukera emango dio, eta titulu hau izango da unibertsitate-lizentziadun-tituluaren balio-kidea edo –orain gehitu den– Gradu-titulua. Beraz, unibertsitate-lizentziadun-tituluaren balio-kideaz gain, Europak galdatzen duen konbergentzia kon-tuan hartuz, Gradu-titulua gehitzen zaio.

Orain arte, goi-mailako musika-ikasketak burutu ondoren, bi aukera zeuden: doktorego-ikasketekin hastea edo jarduera profesional bati ekitea. Orain, Hezkuntza Lege berriaren ondoren, graduondo-ikasketak egin ahal izango dira goi-mailako musika-ikastetxeetan. Ikasketa hauek

amaitu ondoren, unibertsitate-tituluen baliokideak edo graduondo-titulua lortzeko aukera emango du. Bestalde, Hezkuntza Lege berriaren arabera, Hezkuntza Administrazioak hitzarmenak sinatuko ditu unibertsitateekin, arte-ikasketen doktorego-ikasketa propioak antolatzeko asmoarekin.

Autorearen ustez, inertzia da goi-mailako musika-irakaskuntzak, goi-mailakoak izan arren, formalki unibertsitatean ez integratzeko arrazoi nagusia. Behin eta berriro aipatzen du unibertsitate-mailako ikasketen parekoak izanik, oraindik ez direla agertzen unibertsitate-mailako titulu ofizialen katalogoan. Bere ustetan, koherenteagoa dirudi goi-mailako musika-tituluari unibertsitate-mailako irakaskuntzen marko juridikoa aplikatzea, eta, berak dioenez, unibertsitate-legeek bete beharko lukete eginbehar hau, eta ez derrigorrezko hezkuntza arautzen duen lege batek. Kritika honen aurrean, esan genezake Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak inertzia berarekin jarraitzen duela, nahiz eta zenbait alderditan unibertsitate-ikasketei hurbildu.

**IV.** Egungo musika-ikasketen erregimen juridikoaren inkoherentzia azaltzeko, goi-mailako musika-ikastetxeek eta bertako irakasleen erregimen juridikoa aztertzen du, bai batak eta bai besteek bigarren hezkuntzako erregimen juridiko berbera baitute. Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, bere Zioen Adierazpenean, goi-mailako hezkuntzaren izaera aitortzen die musika-ikasketak hauei, eta, aipaturiko inkoherentziei aurre egiteko asmoarekin, *curriculum*-ean eta ikastetxeen antolakuntzan berezitasunak ezarri behar direla aldarrikatzen du.

Araubide bereziko musika-irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeen erregimen juridikoa zazpigarren atalean aztertzen da. Ikastetxe hauek –nahiz publiko nahiz pribatuak izan– ez dute izaera juridiko homogeen bat. Orain arte, bigarren hezkuntzako ikastetxeak bezala antolatu dira. Ikastetxe publikoen artean, kasu batzuetan Administrazioak berak zuzenean kudeatzen ditu, eta besteetan, berriz, zeharkako kudeaketa –organismo autonomoak eta fundazioak– erabiltzen da. Ikastetxe pribatuaren artean ere bi eratakoak egoten dira: guztiz pribatuak direnak, edo Administrazioak sortzen dituenak baina izaera pribatua hartzen dutenak –ad. Euskal Autonomia Erkidegoan Musikene fundazio pribatu gisa eratu da–.

Musika-ikastetxe ofizialak 389/1992 Errege Dekretuak arautu ditu, eta bi ikastetxe mota aurreikusten ditu: musika-kontserbatorio publikoak eta baimendutako musika-ikastetxe pribatuak. Zenbait autonomia erkidegotan, goi-mailako musika-kontserbatorioek ihes egin diote bigarren hezkuntzako ikastetxeak bezala antolatzeari, unibertsitateen barne antolakuntzari hurbiltzen zaizkion organoak eratuz. 2/2006 Lege Organikoak ez ditu kontserbatorioak eta goi-maila-

ko musika-eskolak unibertsitatean barneratzen, baina goi-mailako musika-irakaskuntza goi-mailako hezkuntzan sartzen du, eta, horren ondorioz, ikastetxe horien antolakuntza ere egokitu egin behar dela baieztatzen du. Nire ustez, autonomia erkidegoetako Hezkuntza Administrazioen esku uzten da unibertsitatean barneratzea.

Zortzigarren atalburuan, musika-ikastetxe ofizialetan irakasleen artean ematen diren harreman juridikoak ikertzen dira. Hiru dira, nagusiki, harreman horiek, ikastetxearen izaera publiko edo pribatuaren arabera: funtzio publikoari dagokiona, administrazio-kontratu baten arabera eta lan-kontratu baten arabera –azken hau ikastetxe pribatueta. Musika-ikastetxe publikoetan, harreman juridikoa karrerako irakaslearena izan ohi da: musika-irakasleen kidegokoa edo musika-katedradunen kidegokoa. Lehenengok oinarrizko mailan nahiz maila ertainean irakasten dute eta, salbuespenez, goi-mailako irakaskuntzak ere irakatsi ahal izango dituzte. Musika-katedradunen kidegokoei goi-mailan irakatsiko dute. Bai LOGSEk eta bai 2/2006 Lege Organikoak, musika-katedradunen kidegoa bigarren hezkuntzako irakasleen kidego bat bailitzan eraten dute, nahiz eta kidegoaren zeregina unibertsitate-lizentziadun tituluaren baliokidea den goi-mailako musika-titulua lortzeko burutu beharreko irakaskuntzak irakastea izan. Autorearen ustetan, etorkizunari begira musika-katedradunen kidegoari soilik eman behar zaio goi-mailako ikasketak irakasteko eginkizuna, unibertsitateko irakasle-kidego bailitzan. Arrazoizko proposamena izanik ere, 2/2006 Lege Organikoak ez du halakorik aurreikusi, eta, salbuespenez bada ere, musika-irakasleen kidegoak goi-mailan irakats dezake.

Bestalde, Estatuko Gobernuak ez ditu oraindik katedradunen kidegoari dagozkion espezialitateak zehaztu. Hau dela eta, espezialitateak zehaztu arte, Hezkuntza Administrazioak ezin ditu bere menpe dauden goi-mailako musika-kontserbatorioetako pertsonalaren plantilak egokitu, eta hautapen-probak blokeaturik daude.

Funtzionarioez gain, musika-ikastetxe publikoetan Administrazio-kontratuen menpeko irakaslearen figura ere erabiltzen da, hain zuzen, profesionalak, hau da, irakasle espezialistak kontratatzeko. Hauek salbuespena daude titulazio-baldintzak betetzeaz. Dakigunez, beste edozein titulaziotan ez dago horrelakorik, hau da, profesionalak titulazio-baldintzak bete beharra dauka. Baina beharbada horixe da musika-irakaskuntzaren beste berezitasun bat, artea izatearena, eta artea neurtzeko modua ez da titulu bat erakustea.

2/2006 Lege Organikoak ere musika-katedradunen kidegoan sartzeko aukera ematen die euren lanbide-eremuan prestigio handia dute pertsonari, betiere merezimendu-lehiaketa bat gainditu ondoren.

V. Azkenik, Boloniako prozesuak musika-irakaskuntzan duen eragina aztertzen da. Europan esparru komun bat lortzeko, goi-mailako musika-ikasketen estatusa egokitu beharra dagoela ukaezina da. Autoreak benetako lana egiten du Europan dauden musika-irakaskuntzarako eredu ezberdinak aztertuz. Azterketa honen arabera, aukera ezberdinen berri ematen du. Alde batetik, Frantzia, Italia, Belgika, Txekia eta Irlandak hartzen dutena, espainiar sistemaren antzekoa, non goi-mailako musika-irakaskuntza ez den formalki unibertsitatean integratzen. Beste aukeratariko bat unibertsitatean integratzea da, eta hau egiten duten herrialdeetan honako ereduetakoa bat aukeratu dute: beste edozein ikasketa bezalaxe unibertsitatean integratzea, unibertsitate artistiko bezala eratzea, edo, azkenik, kontserbatorioetan edo akademietan irakasten diren arren, ikastetxei unibertsitate-lerruna aitortzea. Eunate Prietoren ustez, konbergentzia prozesuak goi-mailako musika-ikasketak unibertsitariotzat onartzea galdatzen du, eta, horren ondorioz, edozein ikasketa bezalaxe, unibertsitatean integratzea eskatzen du.

Oro har, bat nator autoreak eginiko kritika eta proposamenekin, baina faltan botatzen ditut liburua irakurtzean behin eta berriro bururatu zaizkidan bi galdera: zergatik dira araubide berezikoak musika-ikasketak? Eta, berezitasun horiek baldin badaude, eta nik uste dut badaudela (progresioaren faktorea eta profesionalek duten "arte" neurtzeko moduak, besteak beste), nahikoa arrazoi al dira erregimen berezi bat ezartzeko?

Azkenik, esan behar dut asko disfrutatu dudala liburu honen irakurketarekin. Planteatzen diren arazoaren aurrean oso ondo oinarritutako soluzioak proposatzen dira, eta azaltzen diren baieztapenak zorrotasunez egiten dira. Bestalde, sistemaren hutsuneak mahai gainean jartzen dira, eta proposamen ugari egiten ditu. Esan genezake musikaren erregimen juridikoaren ikerketan erreferentzi bihurtu dela. Lan bikaina, beraz, Eunate Prietok eginikoa, oso ondo idatzia, gustura irakurtzen den horietakoa eta guztiz gomendagarria.

